

KARMELE MUÑO A ARRIGAIN andreak, Bermeoko Udaleko jarduneko idazkariak,

ZIURTATZEN DOT:

2011ko otsailaren 3an udal honetako **Osoko Bilkureak** erabagi hau agindu dauela:

8.- UDALZAINGOAREN IBILGAILUA RENTING BIDEZ ESKURATZEKO KONTRATUA BEHIN-BEHINEKOZ ESLEITZEA.

Xedea

Udaltzaingoaren lur orotarako ibilgailua renting sistema bidez hornitzeko kontratua behin-behinekoZ esleitzea.

Aurrekariak

Lehenengoa: 2010eko urriaren 28an, Osoko Bilkureak Udaltzaingoaren lur orotarako ibilgailua renting sistema bidez hornitzeko baldintza-agiriak onartzea eta deialdia zabaltzea erabagi eban. Hala ere, kontratazinoa prozedura lehiaketa irekiaren bidez egitea erabagi eban.

Bigarrena: 2010eko abenduaren 29an, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean lizitazio iragarkia argitaratu zen (BAO. 2010/249. zk.).

Hirugarrena: Aitatutako kontratazino prozeduran honako parte-hartzaileek proposamena aurkeztu dabe:

- BANCO SANTANDER: 2011ko urtarrilaren 18an, Madrileko 38. posta bulegoan aurkeztuta eta faxez iragarrita egun berean Udal Bulegoetan, 945. sarrera erregistro zenbakiagaz.
- QUICK RENT SL: 2011ko urtarrilaren 18an, Galdakaoko 1. posta bulegoan aurkeztuta eta faxez iragarrita egun berean Udal Bulegoetan, 946. sarrera erregistro zenbakiagaz.

Argudioak

Lehenengoa: Enpresa biren kontratatze gaitasuna eta kaudimenaren dokumentazinoa egokia dela egiaztatu da.

Bigarrena: Proposamen ekonomikoari buruz, honako eskaintza hauek aurkeztu dabe:

- BANCO SANTANDER: 37.613,16 € (%18ko BEZa kanpo) eskaini du.
- QUICK RENT SL: 36.953,64 € (%18ko BEZa kanpo) eskaini du.

Hirugarrena: Eskaintzak aztertu eta Baldintza Pleguetan zehazten diren esleipen irispideak aplikatuz gero, Udaltzain-buruak, 2011ko urtarrilaren 31ko dataz, txostena emon dau proposamen bakoxtaren puntu-kopurua honako hau izaten:

FORD KUGA MY 2011 TREND 2.0 TDCI 140CV 4WD ZURIA			
	QUICK RENT	BANCO SANTANDER	PLEGUAK
PREZIOA: HILEROKO KUOTA BEZ BARIK	1.026,49	1.044,81	1.250,00
HOBEKUNTZAK			
aldizkako ikuskapen epeak	20 ORDU		
ordezko ibilgailua	bai		bai
konponketen epeak	8 ordu		
txapa pintaketa epeak	8 ordu		
gurpilen aldaketak	30.000km-ro 8 ordu	Ez dau zehazten tailerra. 60.000km	Bermeo edo Mundakako tailer batetan 60.000km-ro
aseguruen kapitalak	gidaria: 50.000€; heriotza: 50.000€; I.P. 50.000		heriotza: 18030€; I.P. 18,030; ILT 27,05€/EGUN
entregatzeko epeak	berehala (30)	60 egun	85 egun
PUNTUAKETA PREZIOA	70,00	68,77	
PUNTUAKETA HOBEKUNTZAK	20	6,66	
ENTREGA EPEAK	10	5	
DANETARA	100,00	80,43	

*OHARRA: BANCO SANTANDER-en eskaintzan ez dira pleguetako konponketa epeak bermatzen. Ez dau gurpilen tailerra zehazten

*OHARRA: QUICK RENT enpresak eskaintza hoberena aurkeztu dau.

Beraz, QUICK RENT SL enpresa da eskaintza hoberena aurkeztu dauena eta Kontratazio Mahaiak adierazitako enpresari kontratu honen esleipena egitea proposatzen dau, puntuaketaren gehiengoa lortu baitu.

Erabagia

Goian aitaturako guztia kontuan hartuta, aho batez, honako hau erabagi dau Osoko Bilkureak:

LEHENENGOA: Udaltzaingoaren erabilerarako lur orotarako ibilgailua renting sistema bidez hornitzeko kontratua QUICK RENT SL enpreari 36.953,64 €-tan (BEZ kanpo) behin-behinekoz esleitzea.

BIGARRENA: Behin-behineko esleipena Bermeoko Udaleko web orriko kontratugilearen profilean argitaratu.

HIRUGARRENA: Enpresa esleipendunari jakinarazotea behin betiko esleipena egin ahal izateko jarraian adierazoten diren jarduketak egin beharko dauzala:

- Indarrean dauden xedapenak ezarritako zerga-betebeharrak nahiz Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak betetzen dituela kreditatzen dituzten ziurtagiriak aurkeztu.
- Behin betiko bermea jarri (1.847,68 €).

Horretarako, hamabost (15) balioduneko epea izango dau, erabagiaren jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

LAUGARRENA: Esleipendunak udalagaz izango dauzan ahozko eta idatzizko hartu-emonak euskaraz izango dira eta fakturarik edo bestelako idazkirik aurkeztu behar dauenean euskaraz aurkeztu beharko dau.

Eta honela izan daiten eta ondorio egokiak eragin daizan, alkate jaunaren aginduz eta onetsiaz, ziurtagiri hau idazten dot, eta bere xedea dan erabagia onartu barik dagoan akta batean dagoala adierazoten deusut, behin betiko onespeneraren menpean dagoela ohartarazota, Bermeon, 2011ko otsailaren 9an.

ONETSIA
ALKATEA